

AURREKO TITULUA

1. Artikulua. Eraketa.

Udaleko Araudi Organikoan xedatutakoaren eta 1999ko abenduaren 20an aho batez Udaltzatarrak hartutako akordioz onartutako «Arrasate garapen jasangarriaren eta Ingurugiroaren alde» deklarazio instituzionalaren babesean, Ingurugiroko Arlokako Kontseilua eratu da Arrasateko Udalan gestio deskonzentratu organoa da eta herritarrek parte hartzekoa, kontsultatzeko izaerakoa, Ingurugiro sailari atxekia organoz eta funtzioz, eta udaletxean du egoitza.

2. Artikulua. Helburua.

Oinarritako helburu hauek ditu Ingurugiroko Arlokako Kontseiluak: Batetik, udal gestioan ingurugiroa babesteko irizpideak sartzea eta herritarrek proposatzea ingurugiroari buruzko udal konpetentziak erabili, bete eta hobetzeari buruz.

3. Artikulua. Egitekoak.

Egiteko hauek ditu Ingurugiroko Arlokako Kontseiluak:

a)Udaleko ingurugiro gestioaren emaitzei buruzko urteko memoriaren berri ematea eta alkateari bidaltzea.

b)Ingurugiro sailaren eta ingurugiro konpetentziak dituzten beste departamentu edo sailen jardun programen eta ekintzen memoriaren berri ematea.

c)Ingurugiro gaietan dauden inbertsio eta jardunen urteko programaren berri ematea.

d)Ingurugiroaren zaintzarekin lotutako udal araudi eta plan eta programen proiektuen berri ematea.

e)Kontseilu-kide berriak sartzeari buruzko informazioa ematea.

f)Ingurugiro gaietan diktamenak egin eta jardun proposamenak egitea ingurugiro gaietan, Ingurugiro sailarentzat eta ingurugiro konpetentziak dituzten udaleko gainerako sailentzat, Kontseiluaren ekimenez edo udal organoak eskaturik.

g)Jardun eta neurriak proposatzea, eta gestio eta ekintza egokiak egitea ingurugiroa hobeto babesteko.

h)Ingurugiro arazoei buruzko herritarren kontzientziazioko politika sustatzea, informazio eta dibulgazio kanpainen bidez, ingurugiroko hezkuntza sustatzeko.

i)Ingurugiro arazoak konpontzen, herritarrek parte har dezaten neurriak proposatzea.

j)Ingurugiro jardunen koordinazioa sustatu, lagundu eta bultzatzea udal sailen artean, ingurugiro ardura duten herri administrazioen artean eta, batez ere, erakunde publiko eta pribatuen artean.

k)Ingurugiro gaietan indarrean dagoen legeria bete dadin zaintzea, eta kexak bidaltzea udalerriko ingurugiroan eragiten duten jardunak edo omisioak daudenean.

l)Kontseiluaren barruan, Lan batzorde edo talde espezifikoetan, egoki iritzitako egitekoak delegatzea.

m)Barne araudiko arauak onartu eta aldatzea: (Lantaldeak eratzeko era, jarraipena, ordutegia, bilkuren iraupena, kontseilu-kideen kreditazioa,) Araudi honi loturik.

n)Udalbatzarrak, Alkatetzak edo Kontseiluburutzak, edo Ingurugiroko batzordeak gomendatutako egitekoak garatzea.

LEHEN TITULUA

«KONTSEILUAREN ORGANOEI BURUZ»

4. Artikulua. Osaketa.

Bat. Ingurugiroko Arlokako Kontseiluak organo hauek izango ditu:

1)Kontseiluaren batzarra.

2)Kontseiluburutza.

3)Idazkaritza.

4)Lan batzordeak.

5. Artikulua. Kontseiluaren batzarra.

Kontseiluaren organo gorena da batzarra, eta hura osatzen duten pertsonak osatzen dute iritziz eta botoz.

Hauek osatuko dute:

a)Kontseiluburuak.

b)Arrasateko Ingurugiroaz interesa erakusten duen erakunde, elkarte eta entitate ekologiko bakoitzaren pertsona ordezkari batek, Kontseiluan sartzeko, formaz egindako eskaera, onartu eta gero.

c)Udaleko talde politiko bakoitzaren ordezkari batek.

d)Ingurugiroari buruz kontseiluak, Ingurugiro sailak edo beste antolaketa formula batzuk dituzten enpresa, sindikatu eta profesional bakoitzaren pertsona ordezkari bat, Kontseiluan sartzeko, formaz egindako eskaera, onartu eta gero.

6. Artikulua. Kontseiluaren Batzarraren egitekoak.

Bat. Kontseiluaren Batzarra osatzen duten pertsonak hauek egin ahal izango dituzte:

—Bilkuretako eztabaidetan parte hartu.

—Ingurugiroari buruzko azterketak eta proposamenak egin.

—Boto eskubidea erabili eta, hala badagokio, boto partikularra izan, zein motibo duten adieraziz.

—Galde-erreguak egin.

—Batzarkide izaerari datxekion beste egitekoak gauzatu.

Bi. Kontseiluko batzarkideek ezingo dute ordezkaritza egitekorik izan, izan ere batzarburuari baino ez dagokio hori, organoak berak balioz erabakitako arau batek edo akordio batek berariaz eman ez badu, kasu jakin bakoitzerako.

7. Artikulua. Kontseiluburutza.

Bat. Udalbatzako alkateak izango du kontseiluburutza.

Bi. Ingurugiroko batzordeburutza daukan zinegotzia da berez kontseiluburua.

8. Artikulua. Kontseiluburutzaren egitekoak.

—Kontseilua ordezkatzeari.

—Bilkura arruntak eta bereziak deitzea.

—Auzoetako alkatetzak eta udal teknikariak gonbidatzea.

—Gai zerrenda onartzea.

—Bileren nondik-norakoa zuzendu eta moderatzea.

—Kalitateko botoaz erabakitzea botazioen emaitza.

—Herritarren parte hartzea bermatzea.

—Kontseiluaren akordioak betearazi eta, hala badagokio, zabaltzea

—Hauen arteko harreman koordinatzea: Ingurugiroko Arlokako Kontseilua, Udalaren Gobernu eta Kudeaketa Organoak, Ingurugiroan eskumenak dituzten erakunde ofizialak, Auzoetako Alkatetzak, sailak eta udal zerbitzuak; eta,

—Kontseiluburu izaerari datzekion beste egitekoak betetzea.

9. Artikulua. Idazkaritza.

Bat. Udalbatzako idazkaritza nagusia duena da berezko idazkaria.

Bi. Ingurugiro sailean ekokontseilari dena izango da benetako idazkaria.

Hiru. Idazkaria ez da izango Kontseiluko eskubide osoko kidea, quorum-erako, eratzten denean, gehiengo eta botazioetan. Halaxe joko dira ere Kontseilura gonbidatutako gainerako udal teknikariak.

10. Artikulua. Idazkaritzaren egitekoak.

Idazkariari dagozkio:

—Bileretara joatea.

—Gai zerrenda prestatzea.

—Bileretako akta jasotzea.

—Zitazioak, gai zerrendak eta Kontseiluak sortzen duen dokumentazioa bidaltzea.

—Kontseiluaren akordioak tramitatzea.

—Hala badagokio, behar diren laguntza juridikoekin, aholkua ematea jorratzen diren gaien legezko alderdiei buruz.

—Idazkari izateari datzekion beste egiteko batzuk betetzea.

11. Artikulua. Lan batzordeak.

Bat. Lan batzordeak eratu ahal izango dira, Ingurugiroarekin lotutako gai jakin batzuk aztertzeko, Kontseiluaren batzarrak beharrezkotzat jotzen duenean.

Bi. Kontseiluaren batzarrak zehaztuko ditu osaera, izena eta funtzionamendua.

Hiru. Bidezkotzat eta beharrezkotzat jotako udal laguntza teknikoa edo kanpoko eskatuko du kontseiluburutzak.

Lau. Jorratutako gaien berri emango diote lan batzordeek Kontseiluaren batzarrari.

12. Artikulua. Ordeztu eta delegatzea.

Ingurugiroko Arlokako Kontseilua osatzen duten organoetako pertsona titularrak ordeztu egin ahal izango dituzte, gaisorik daudenean eta justifikatutako beste arrazoiren bat dagoenean, delegatzen dituzten pertsonak.

13. Artikulua. Ingurugiroko Arlokako Kontseiluaren eskubide osoko kideen eskubideak eta betebeharrak.

Bat. Hauek egiteko eskubidea dute Ingurugiroko Arlokako Kontseiluaren eskubide osoko kideek:

—Kontseiluarentzat interesgarria den edozein gairi buruz eta Ingurugiroarekin lotuta dagoen edozein gairi buruz, Udala gobernatu eta kudeatzeko dauden organo aginpidedunek hartutako erabakien berri izateko.

—Aktan jasoko diren eta Kontseiluak aztertuko dituen proposamenak egiteko; eta,

—Kontseiluan eratzen diren lantalde edo lan batzordeetan parte hartzeko.

Bi. Betebehar hauek dituzte Kontseiluaren eskubide osoko kideek:

—Egiten diren bileretara joatea; eta,

—Kontseiluan ordezkaritza daukaten pertsonak helbidean edo egoera juridikoan edozein aldaketaren berri ematea.

BIGARREN TITULUA «ANTOLAKETA ETA JARDUNARI BURUZ»

14. Artikulua. Bilkura arruntak.

Bat. Ingurugiro Arlokako Kontseiluak bilera arruntak bi hilez behin burutuko ditu.

Bi. Bilera edo bilkura arrunta eta berezien deialdia, gutxienez bi lanegun lehenago egin behar dira.

Hiru. Deialdia egin baino bi egun lehenago izan behar ditu Kontseiluko idazkaritzak jorratu behar diren gaien eskaerak.

15. Artikulua. Bilkura bereziak.

Bat. Kontseiluburuak beharrezkotzat jo ezkeru, eta Udaltzako udal talde batek ere, bilera bereziak egingo dira. Eskubide osoko kide gehienen proposamenez ere bilera bereziak egin ahal izango dira. Kasu horretan bilera berezia hilabeteko epean burutu beharko da, eskaera egiten den egunetik aurrera.

16. Artikulua. Bileretara joatea.

Bat. Kontseiluburutzak gonbidatuko ditu auzo alkateak Kontseiluaren bileretara, haien jardun eremuarekin lotutako gaiak jorratzen direnean.

Bi. Kontseilura etorri ahal izango dira, beti ere Ingurugiroko batzordeak hala eskatzen duenean, Ingurugiro gaietan izen aitortua duten pertsonak edo teknikari adituak bileretan eztabaidatu behar diren gaietan.

17. Artikulua. Bilkuren araudia.

Bat. Ingurugiroko Arlokako Kontseilua eratutzat joko da lehen deialdian, gutxienez, osatzen duten eskubide osoko kideen erdia baino pertsona bat gehiago dagoenean bileran, eta bigarren deialdian, berdin diolarik zer kopuru duen. Ingurugiro Arlokako Kontseiluaren eraketa baliozkoa izateko Lehendakaria eta idazkariaren presentzia beharrezkoa izango da, nahi eta nahi ez.

Bi. Kontseiluaren eskubide osoko pertsonen botoen gehiengo soiluz hartuko dira akordioak. Edozein modutan ere, eskubide osoko pertsonen gehiengo absolutuaren aldeko botoa behar da, Ingurugiroko Arlokako Kontseiluaren funtzionamenduaren barne arauak onartu eta aldatzeko.

Hiru. Ezin da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan jarri ez den gairik, kide anitzeko organoko kide guztiek bilduta ez baldin badaude, eta gehiengoak aztergaia presakoa delakoa erabaki ezean

Lau. Idazkaritzak sesio bakoitzaren akta jasoko du, horretan bileraren partehartzea, gai zerrenda, zirkunstantziak, tokia eta iraupena zehaztuko da. Baita deliberazioen aspektu garrantzitsuenak eta harturiko erabakien edukiak ere.

Bost. Batzarkideek halaxe eskaturik, hartutako akordioarekin bat ez datorren botoa edo abstentzio botoa agertuko da aktan. Kideek boto partikularra egin ahal izango dute idatziz bilkura amaitu zenetik 48 orduko epean, eta onartutako testuan sartuko da, Aktaren eranskin gisa, eta zer horretan kontrako botoa, abstentzioa edo aldeko botoa justifikatzen dituen motiboak azalduko dira.

Sei. Aktak hurrengo bilkuran onartuko dira, baina idazkaritzak ziurtagiria egin ahal izango du, hartu izan diren akordio espezifikoei buruz, geroago akta onartzearen kalterik gabe.

Hartutako akordioen ziurtagirietan, akta onartu bain lehen emandako akordioak, berariaz adieraziko da zer hori.

18. Artikulua. Akordioen balioa.

Nahitaezkoak izango dira 3. Artikuluko b), c) eta e) puntuetan adierazten diren txostenak.

19. Artikulua. Informatzeko betebeharra.

Kontseiluak eskatutako informazio eskabideei erantzun behar diete udal organoek, 15 egun baino luzeagoa ez den epean, txostena eskatzen jasotzen den unetik kontatzen hasita.

20. Artikulua. Pentsatu gabeko egoerak.

Araudi honetan pentsaturik ez dagoen guztirako, hauetan ezarritakoa hartuko dira kontuan, Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Jardunbide Komunaren 30/1992 Legean eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubidearen Araudian, eta haren ordezkari Udaleko Araudi Organikoan.

21. Artikulua. Bukaerako artikulua.

Edozein kasutan ere salbu geratzen dira Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 24. eta 69. artikuluetan aipatzen diren udaleko ordezkari organoetako bakoitza baino ez dagozkien erabaki ahalmenak.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA.

Ahalmena du Ingurugiroko Batzordeak, Udaleko idazkaritza orokorrak txosten egin eta gero, araudi honen edukia interpretatu eta haren hutsuneak betetzeko, bat etorritik indarrean dauden arauekin eta, bereziki, Udaleko Araudi Organikoari buruzkoa, egokia dena aplikatuko baita.